



**Arartekoaren ebazpena, abenduaren 15ekoa. Horren bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio hirigintzako araudia urratzeagatik ezarritako zigor bat baliogabe dezala.**

### Aurrekariak

1. Bermeoko udalerrian, (...). zenbakiko teilatupean kokatuta dagoen lokal bateko jabea erakunde honetara jo du eta adierazi digu ez dagoela ados hirigintzako araudia urratzeagatik ezarri dioten zigorrarekin.
2. Zehazki hauxe helarazi digu: bi espedienteen iraungipena eta gero, Bermeoko Udalak -2010eko apirilaren 21ean- zigortzeko hirugarren espedientea hastea erabaki duela (...). zenbakiko ganbara batean gauzatutako birgaitze lanak direla eta [(...) espedientea].
3. Jabeak, 2008ko apirilaren 2an, zegokion hirigintzako lizentziarik gabe, ganbaran zorua eta sabaia indartzean zeuntzaten lanak hasterakoan egindako arau-hasteak eragin zuen zigorra.
4. Hirugarren espediente horri dagokionez, Ararteko erakundeak udalera jo zuen 2010eko irailaren 10ean bidalitako idazki baten bidez. Bertan, 8/2009 Gomendioan egin genituen gogoetak azpimarratzen genituen, hau da, obren garrantzi eskasa, obrak legeztatzea berehala eskatu zela eta ondoren legeztatu zirela. Horregatik guztiagatik, Bermeoko Udalari proposatu zuten zigorra baliogabetzeko eskatu genion.
5. Ondoren, kexagileak jakinarazi zigun, 2010eko urriaren 14an, soilik euskaraz idatzitako jakinarazpen bat jaso zuela -2010eko azaroaren 24ra arte ez zioten jakinarazpena bi hizkuntzatan bidali- eta, bertan, aurkeztutako alegazioak gaitzesteaz gain, 5.001 euroko zigorra ezartzen zioten salatutako gertakarien ondoriozko arau-hauste larriagatik. Edonola ere, kexagileak ebazteke dagoen berraztertze errekurtso bat aurkeztu du zigor horren kontra.  
Bai informazio hori bai aipatutako gainerako inguruabarrak ikusita, eta horien edukia aztertu ondoren, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut:



## Gogoetak

1. Erreklamazio honen xedea da guri jakinaraztea Bermeoko Udalak –aurreko bi espedienteen iraungipena eta gero- berriro ere zigorra ezarri diola hirigintzako legezkotasunarekin lotutako arau-hauste larriagatik, ganbaran zorua eta sabaia indartzean zeuntzaten lanak egin baitzituen zegokion hirigintzako lizentziarik gabe.

Kexagileak uste du, beste inguruabar batzuen artean, zigorra neurritz kanpoko delatela, une oro laguntzeko prest egon delatela, obrek garrantzi txikia dutela eta berehala arautu direla kontuan hartuta.

2. Espediente horretan udalak bidali zuen informazioa jasotzen da, informazioa honi buruzkoa da: lizentzia gabe hasitako ganbarako lanen ondoriozko diziplina espedientearen zein ondorengo legezkatzearen gaineko izapideak, bai eta lanak lizentzia gabe hasteagatik udalak izapidetutako zigortzeko espedienteak ere.
3. Gertakari horiekin lotuta, Ararteko erakundeak ekainaren 11ko 8/2009 Gomendia bidali zion Bermeoko Udalari, hirigintzako araudia urratzeagatik ezarritako lehen zigorra ondoriorik gabe utz zezan eskatzeko.

Gogoeten barruan, arau-haustea eragin zuen gertakaria, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (LHL) 225.2.b) artikulua ezarritakoaren arabera, arau-hauste larri gisa kalifikatzearen inguruko zenbait erreferentzia gehitu genituen. Kasu honetan, arau-haustea eragin zuen gertakaria lanak lizentzia gabe gauzatzea izan zen. *“Egiturazko elementuei eragiteagatik, proiektu teknikoa behar dutelarik, lizentziarik lortu ez duten obrak egitea. Salbuespen izango dira hiriko, landa guneko edo naturako paisaian aldaketa gutxi eragiteagatik, edo ondasun edo pertsona segurtasun eta osasunari gutxi eragiteagatik, arau-hauste arintzat har daitezkeenak.”*

Modu berean, gogoeta horien 3. puntuan honako hau adierazi genuen:

*“Aurrekarietan aipatutako gertakariak ikusita, egokia da salatutako gertakarien kalifikazio juridikoarentzat aintzat hartutako elementuen balorazioa egitea.*

Zigortzeko espedienteetan ganbarako zorua eta sabaia estaltzeko obrak egin direla egiaztatuta geratu da. Obra horiek zegokien nahitaezko hirigintzako lizentzia eduki gabe hasi ziren.





Bidalitako administrazio espedientearen ez dira jaso honako balorazio teknikoak: obren garrantziari buruzkoa, eraikinaren egiturazko elementuetan izan duen eraginari buruzkoa edo hiri paisaiarentzat edo ondasunen eta pertsonen segurtasunarentzat dakarren aldaketari buruzkoa.

Agiri bidez egiaztatzeko froga nagusia eta bakarra udaltzaingoaren 2008ko martxoaren 2ko txostena da. Bertan, obrak dagokien baimenik gabe gauzatzen ari direla aipatzen da.

2008ko martxoaren 3ko udal arkitektoaren txostena egindako eskaeraren aldekoa da eta lizentzia ematea proposatzen du. Txostenak zuzenketa bat hartzen du barne. Bertan, obren proiektua aurkezteko beharra planteatzen da. Dena den, txostenak ez du zehazten zergatik duten eskatutako obrek garrantzi tekniko nahikoa proiektu teknikoa aurkezteko eskatzeko.

Nolanahi ere, beharrezkoa da aipatzea obren sustatzailearen jarrera arau-hauste larritzat jotzeko, obren garrantzia egiaztatzeko balioko duten elementuak aurkeztu behar direla, LHLko aipatutako aginduaren arabera; eraikinaren egiturazko elementuekiko eta segurtasunarekiko eta hirigintza aldaketarekiko eraginari dagokionez.

Alde batetik, gertakariak Bermeoko Udalak azaldu dituen moduan kalifikatu ahal izateko, beharrezkoa izango litzateke tekniko fakultatibo baten balorazioa, egindako obrek eraikinaren egiturazko elementuei eragin zieten edo ez jakiteko. Instrukzio organoak *sabaian pladurrezko estaldura jartzean* dautzan lan batzuk lizentziarik gabe gauzatu direla baino ez du frogatu baina ez du horien garrantzia baloratu. Hala ere, erreklamatazaileak ondorengo lizentzia lortzeko aurkeztutako txostenak dio ez dela izan egiturazko elementuekiko eraginik "bertan ez zen aurkitu egitura izaerako lanik.

Era berean, espedientearen izapidetzean ez da ondasunen eta pertsonen segurtasunarekiko eraginaren inguruan ezer aipatu. Agian hori izan zitekeen ganbarako lokala birgaitzeko obren hasiera.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu egindako obrek ez dutela hirigintza ordenan aldaketarik eragin. Udaltzaingoak egindako ikuskapen bisitaren ostean, obrak gelditu egin ziren. Une horretan bertan sustatzaileak udalari zegokion baimena eskatu zion. Garrantzitsua da aipatzea teiltupean dagoen etxabeko birgaitze obrak ondoren legeztatu egin direla, udal plangintzaren aurreikuspenekin bateragarriak baitira.





Hori dela eta, espedientean jasotako dokumentazioari jarraiki, uste dugu kalifikazio hori, hau da, arau-haustea larritzat jotzea, ez dela nahikoa frogatu. Izan ere, arau-haustea arina dela pentsarazten duten argudioak daude eta inguruabar hori espedientean behar bezala egiaztatu beharko litzateke, LHLren 225.3. artikulua terminoetan azaldu ditugun gogoeten arabera”.

Planteamendu horrekin bat eginez, bigarren zigortzeko espedientea izapidetzen zen bitartean, 2009ko uztailaren 14an, udal arkitektoak ganbara ikuskatu zuen. Txostenak egiaztatu zuen lanek aurkeztutako proiektuarekin bat egiten zutela. Nolanahi ere, azaltzen zuenaren arabera, aurkeztutako proiektuak aipatzen zuen egin nahi ziren lanek egituraren eragina zutela. Hori dela eta, hauxe izan zen haren iritzia: egoera horretan, lanak goi-mailako proiektu teknikorik gabe egin zirela. Halaber, alde zaharreko lanek gehienetan agortuta dauden egurrezko egiturengan eragina zutela aipatzen du eta, beraz, beharrezkoa zela alde aurretik goi-mailako azterketa tekniko bat egitea edozer gauza egiten hasi baino lehen, kasu honetan halakorik egin ez bazen ere.

Aipatu beharra dugu salatutako esku-hartzea 2008ko apirilaren 2an hasitako obrak izan zirela, eta ez ondoren egindakoak, behin lanerako lizentziaren eskaera eginda. Hau da, arau-haustea lizentziarik gabe hasitako lanek eragin zuten, eta ez ondoren legeztatutako eta egindako lan-multzoa.

Hori dela eta, 2008ko apirilaren 2ko txostenaren arabera, lanak lizentziarik gabe egiteak eragin zuen hirigintza arloko arau-haustea egin zen unean zegokion azterketa teknikoa egitea egokia zen.

Hala eta guztiz ere, udal arkitektoak beranduago egin zuen txostena -2009ko ekainaren 14an-, beraz, ezin izan zuen hasitako lanen izaera une egokian aztertu, ezta egituraren eta eraikinaren segurtasunean eragina izango zuten lanak ote ziren aztertu ere.

Gauzak horrela, ez dago lizentziarik gabeko lanen izaera modu teknikoan baloratzea ahalbidetzen duen beste elementurik. Alderantziz, erreklamatzailerak ondorengo lizentzia lortzeko aurkeztu zuen txostenak zehazki zioenaren arabera, ez zen izan egiturazko elementuekiko eraginik *“bertan ez zen aurkitu egitura izaerako lanik”*.





Horrexegatik, egoki deritzogu 8/2009 Gomendioan egin genituen gogoeta berdinak errepikatzeari -hirugarren espediente honi dagokionez-. Aipatu gomendioan azaltzen genuenez, arau-haustea larri gisa kalifikatzeko argudio nahikorik ez zegoen, arintzat jotzearen aldeko argudioak baitzeuden.

Horren ondorioz, lizentziarik gabe egindako lanen garrantzi txikia, legeztatze berehalako eskaera eta ondoren lanen lizentzia eman zela kontuan hartuta, udalak arau-hauste arinei dagokien isuna proposatu behar izan luke, zenbatekorik txikienean, edo erantzukizunetik salbuetsi behar izan zuen, ebazpenean bertan jasotako salbuesleak aplikatuz.

- Beste kontu batzuei helduz, zigortzeko espedientearen iraungitzea berriro planteatu beharra dago, sei hilabete baino gehiago igaro baitira espedienteari hasiera emateko akordioa egin zenetik zigortzeko ebazpenaren jakinarazpena arte.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, 43.4. artikuluan hauxe ezartzen du: prozedura hasten denetik ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazten ez bada, horrek balioa galtzen du, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (HAAJL\_APE) 44.2. artikulua terminoetan eta artikulua horrek ezartzen dituen baldintzekin, betiere, interesdunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik gelditu ez bada.

Zigortzeko ahalmenaz baliatzeko prozeduraren araudia onartzen duen 1398/1998 EDeK, berriz, hauxe dio: berriazko ebazpena ez bada sei hilabeteko epean eman, iraungitze epearen zenbaketa hasten da.

Esku artean dugun kasuan, epea zenbatzeko "*dies a quo*" izenekoa –espedientearen hasiera- 2010eko apirilaren 21a izan zen eta "*dies ad quem*" izenekoa -zigortzeko ebazpenaren jakinarazpena, euskararen normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8.2. artikuluan ezarritako terminoetan- 2010eko azaroaren 24ra arte ez zen gertatu.

Horregatik, erakunde honek uste du, espedientearen jasota dagoen informazioa kontuan hartuta, zigortzeko ebazpena baliogabetu beharko litzatekeela, espedientearen iraungitzeagatik amaituta egon behar zuen prozedura batean xedatu delako, hain zuzen ere, sei hilabeteko epea igarotzeagatik.





Modu berean, erakunde honen ustez, kexagileak egin duen arau-haustea arin gisa kalifikatu behar denez, LHLren 228.1.c) artikuluan ezarritako bi urteko epea igaro izanak zigortzeko ekintzaren preskripzioa eragiten du. Aintzat hartu behar da iraungita dauden espedienteek ez dutela preskripzio epea eteten.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### **24/2010 GOMENDIOA, abenduaren 15ekoa, Bermeoko Udalari egina**

(...) kaleko (...). zenbakian lizentziarik gabe egindako lanak direla-eta, 2010eko irailaren 29ko Gobernu Batzordearen akordioaren bitartez adostutako zigorra baliogabetu dezala.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 229. artikulua ezartzen duen bi urteko epea igaro denez, zigortzeko espedientea behin betiko artxibatu dezala, administrazioaren erantzukizuna exijitze aldera.

